



Datorren ikasturterako hainbat berritasun

Aste honetan burututako eskola Kontseiluaren bileran hainbat proposamen pedagogiko eta metodologiko aztertu eta erabaki ziren:

- **LH4en ere EKI proiektua ezartzea** (besteak beste, proiektu hori ezartzeak irailatik aurrera pandemiak ekar lezakeen digitalizazioa erreztuko luke).
- **DBH1en lau arlo digitalizatuko dira:** Euskara, Gizarte Zientziak, Natur Zientziak eta Frantsesa (ikusitako oharren atala).
- **DBH1en Frantsesa nahitaezko arlo** bihurtuko da.



Material jasotzea HH, LH eta DBHn

Ikasturte amaieran ikasleen materiala jaso ahal izateko prozedura abian jarri dugu. **HH** eta **LHn** jasotze hori **ekainaren 22tik** aurrera izango da. **DBHn**, berriz, **ekainaren 12** eta **15ean** izango den jasotze eta itzultze prozedura hori [hemen](#) azaltzen da euskaraz.



Lanbide Heziketakoak azterketa garaian

GKAlko ikasleak ikasgelan aritu dira azterketak egiten, babes neurri guztiak hartuta. Zoriontzeko moduko jarrera izan dute ikasleok, batez ere kontutan izanik adin nagusikoak direla eta arduraz jokatzeko aukera hau hautatu dutela. Areago, egunotan bizitzen ari garen segurtasun testuingurua asko lasaitu dela ikusita.



OHARRAK / AGENDA:

- **Liburu salmenta 20/21:** [Informazioa eta eskaerak](#).
- **Zerbitzuak 20/21:** [Informazioa eta izen ematea](#).
- **HH-LH:** Arreta/harremana ikasleekin goizez izango da eta harremana familiarekiko arratsaldean.
- **LH4-5:** EKI proiektuaren aurkezpena familiei. Irailean egingo da.
- **LH6:** Datorren ikasturteko DBH1eko Chromebookei buruzko antolaketa eta zehaztapenen gutuna: Ekainak 26.
- **DBH1:** Liburu salmentan laguntza behar da. [Oharra](#).
- **DBH4-BATXI:** Merkatu txikia. Saldu eta eros daitezkeen liburuak. [Batxi1](#) eta [Batxi2](#).
- **Ikastolako komunitatearentzat hizketaldiak:** [Burututako hizketaldiak](#).

